

Abarak

UNAI BREA

Jainkoa bene-benetan hilko balitz

God is dead. Ron Currie Jr. (Viking, 2007).

EZ DA ERRAZA Ron Currie estatubatuarren lehenbiko eleberria deskribatzea. Agian horregatik, behinola nire eskuetara iritsi zen gaztelaniako edizioan bederen, hegaleko iruzkinak gantakizunaren hasieran kokatzen du bosgarren kapitulura arte gertatzen ez den zerbait. Eta bederatzi kapituluko liburu batez ari gara. Baldarkeria hori da *God is dead* (Jainkoa hil da) nobelari aurkitzen diodan hutsik handiena. Bestela, biziro gomendatzen dizuet.

Lehen pasarteak Sudaneko errefuxiatu esparru batera garamatza. Gauza harrigarri bi gertatzen diran: batetik, Colin Powellen arraza-kontzientzia esnatu egiten da. Bestetik, Jainkoa, dinka leinuko emakume batengan haragituta Lurrera bisitan etorri dena, hil egiten da, baina ez Nietzschek proposatutako zentzu filosofikoan, zentzu fisikoan baizik. Hil-hil. Existitzeari utzi. Dena den, hori ez dugu bosgarren kapitulura arte jakingo, emakume-jainkoaren gorpua jan

duten txakurretako batek kazetari bati egindako adierazpenen bitartez. Liburuaren kontrazalean aipatzen badute txakurra, ez da hain bekatu larria izango neu ere *spoil*-ean aritzea.

Nobelaren gainerako pasarte guztiek giro surrealista bera dute. Gehienek ez dute loturarik elkarrekin, eta badutenen kasuan, xumea da lotura hori. *Benetan* Jainkorik ez dela jabetu den mundu kaotikoa aurkezten digute, batak bestearen ondotik, atmosfera gero eta itogarriagoan murgilduko gaituzten istorio distopikoek. Baina ez zaigu argi geratuko —ez niri, behintzat— egileak erlijio-fedearen abantailak aldarrikatu nahi izan dituen, edo, aitzitik, fede horren makulurik gabe bere kasa ibiltzen ez dakien gizateriaren ahuldadea salatu. Kapitulu guztiak Bibliaren aipu batekin hasia egilearen erlijiozaletasunaren seinaleztat hartu izan dute kritikari batzuek, baina auskalo. ■



www.bilbohiria.com

BI-96.0-FM

Bilbo Hiria irratia

15 urte ospatzen!

12 astelehena 10:30
Txango Kulturala
"Bilbo ezagutzen" Miribillako tximiabik irtenda

14 asteazkena 21:00
Rafa Rueda Hitzaldia Kafe Antzokian
"Enaren Geometria diskoaren sekretuak kantuz eta hitzez" Doako sarrera

15 osteguna 21:30
Matxura Kafe Antzokian
Disko berria aurkeztera dator Mikel Kazalis, Aitor Abio, Fernando Sapo, eta Txarly Diaz kide dituen taldea
Sarrera: 5.00€
Kafe Antzokia, www.kafeantzokia.com

28 asteazkena 10:00
"Ibaizabal Magazina" Zuzenean Kafe Antzokitik
Doako sarrera

2012 martxoa

kafe antzokia

www.kafeantzokia.com

15 osteguna 21:30 Matxura	16 ostirala 22:00 Leiva	17 larunbata 14:00 La Fheile Padraig Cara	17 larunbata 22:00 Seafoild * Maha
19 astelehena Argazki erakus.	21 asteazkena 14:30 Jon Sarasua (Hitzaldia)	21 asteazkena 21:00 Jonathan Richman	22 osteguna 21:30 Vendetta
23 ostirala 19:00 Bertsolari Gazteen Sariketa	23 ostirala 21:00 Gabriel Aresti jai	26 astelehena 20:00 Urbeltzen Dantza Ganbara	27 asteartea 21:00 Mark Lanegan Band
28 asteazkena 10:00 "Ibaizabal Magazina" Zuzenean	30 ostirala 22:00 McEnroe	31 larunbata 23:00 Willie Nile & Band	04 asteazkena 22:00 The Fakeband * Rubia

Bilbo Hiria Irratia - Done Bikendi 2, 6. solairua - 48001 - BILBO
Telefonoa: (+34) 94 424 67 04 - Fax: (+34) 94 423 52 09

Bilbo - Done Bikendi 2 - 48001 - tel: 94 424 67 04 - info@kafeantzokia.com
Ondarrena - Iparagorri 11 - 48700 - tel: 94 662 83 82